

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO



CARLOS REGLA

**Armand David**  
(Ezpeleta 1826-Paris 1900)

Zuhaitzen abaroan daudenek sortzen didaten inbidia. Edinburgokoek oraingoan, hango Botanikoan baitago argazkikoa. Etxean aldatuta daukat, baina oraindik ume bat izanik ez du lorerik ematen. Eskoziar hau bai, oparo, loraz gainezka. Lagun bat izan berri da musuzapiak diruditen loreon gerizpean, nire debilidadeaz gogoratu eta to, hor bidali dit argazkia. Gazteleraz hala deitzen diote zuhaitzari *arbol de los pañuelos*. Izen zientifikoa *Davidia involucrata* du. Armand David fraide eta naturazale lapurtarraren omenez. Panda artzaren berri berak eman zuen, baina bere abizena ohorezko izen gisa daramana zuhaitz hau da. *Davidii* edo *armandii* ize-nak daramatzaten landareek ere bera dute ohoratzen.

## OKERRAK ZUZENTZEN

Zuzentzeko grinak okerreko izenburua jartzen eraman gituen joan den asteko artikuluan. “Asarrea” zen, berez, izenburua, eta ez “haserrea”, guk jarri bezala. Testu barruan akats bera egin genuen: gorbeldi “hasarre” bihurtu genuen berez gorbeldi “asarrea” zena, alegia, oso gorbeldi handia.

## Bobobo edo goia

IZENIK EZ DUGU euskaldunok, noski, makina bat landarerentzat. Esku artean dugun arte ezin izendatu. Orain dela bi asteko *Anacardium occidentale* landareari “anakardo” edo “cajurra” deitzeaz ari nintzela, etxeko larreetara kamamiletara etortzen diren ama-alaba batzuek egin zidaten galdera: Kuba aldeko “condiamor” landarea ezagutzen ote dudan. Otañoren bertsoko onbuaz galdu zidatenean bezalaxe, arrastorik ere ez. Batean eta bestean zoko mian ibili ostean sendabelarra dela jakin dut. *Momordica charantia*-ren euskal izenik inondik ere ez ordea... Hemen ere zerbait sortu beharko dugu. Sortu edo, adibidez, Osasunerako Mundu Erakundearen sendabelarren zerrendan jasoak dituen bere ziento batetik gorako tokiko izenen artetik aukera-tu: african cucumber, amargoso, ampalaya, art pumpkin, asorosi, assorossi, balsam apple, balsam pear, Balsambirne, balsamina, balsamino, ban karelli, baramasiya, barbof, bitter cucumber, bitter gourd, bitter melon, bitter pear melon, bobobo, broomweed, calaica, caprika, caraila, carilla, cerasee, concombre, condiamor, coraillie, cun de amor, cundeamor, ejirin, embusabusu, eyezom, furoreishi, goya, haagalakaayi, hagalakai, 'ha, 'hail, kaakara kaaya, kabiral, kaippa, kakara, kakiyi, kakiral, kakle, kakral, karala, karavella, karavelli, karawila, karela, karla, karlara, karolla, kathila, khor qua, khyar carilla, kokouli, kugua tea, kuguazi, lenzaa, lumbalumba, lumbuzi, ma ra, machete, maha, maiden apple, maiden's blush, manamat, mange kuli, mara, mara khee nok, margoze, mbosa, mbunbulu, melao de sao caetano, meleni, mexicaine, miniklasni, momotica, mreah, muw, nagareishi, nania nania, nara cheen, nguene, nigauri, nyanyra, nyinya, okookoo, pagel, paharkai, palia, panaminik, papari, papayilla, papilla, paria, pavakka, pavel, phak, paroka, pavackkai, pavakkachedi, pepino montero, peria, periya laut, phakha, pom kouli, pomme ner-veille, pomme z'indiens, pomme-cooli, qara a mor, quisaul-barri, quisaul-barri, serimentok, seripupa, saga, sail, salara, sorosi, sorrow see, sushavi, tasplira, tofahal, uchhe, ulhimar, varivalli, wild balsam pear, wild sopro, yesquin, zague, zrou...

Euskararako ez al da dotorea bobobo, edo goia, edo salara, edo peria, edo karela, edo kakara, edo...



ROBERTEE

Euskaraz nola esan honi?